



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 4a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan mendekotasuna dutenentzako laguntzaren eredu bat zehatz dezan, jarduketa plan bat ezarrita. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugalkortasun Unitateko obrak esleitze aldera. Nafarroa Bai parlamentutaldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuiatzen duela. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren protokolo fakultatiboak ezarritako babes-neurriekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, Amazonasko indigenen erkidegoaren protesta amaiazte aldera Peruko Gobernuak Baguako oihaneko herritarrei eragindako errepresio eta erasoei buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Gendulainen etxebizitzak eraikitzeko sustatzaileentzako balizko abalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, elikadura-jokabidearen nahastei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duena. Barne-funtzionamendurako arauak (15. or.).
- Lan-taldea, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko. Barne-funtzionamendurako arauak (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikuluari buruzkoa (17. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan mendekotasuna dutenentzako laguntzaren eredu bat zehatz dezan, jarduketa plan bat ezarrita.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan mendekotasuna dutenentzako laguntzaren eredu bat zehatz dezan, jarduketa plan bat ezarrita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako CCOO sindikatuak duela gutxi egitiko txosten batean, mendekotasuna duten pertsonen arreta-sistemari buruzko atalean, esaten da beharrezkoa dela inbertsioak egitea alor publikoko azpiegitura eta zerbitzuetan, ziurtatze aldera mendekotasuna duen eta prestazio horiek behar dituen edozein pertsonak eskuratu ahalko dituela. Gogora ekarri behar da zerbitzuari lotutako dirulaguntzak soilik ezartzen direla ezinezkoa denean

arreta eta zaintza zerbitzu publiko itundu bat esku-ratzea, betiere kontuan hartuta mendekotasunaren maila eta gradua, bai eta onuradunaren gaitasun ekonomikoa ere, postu nahikorik ez badago.

Nafarroan, mendekotasunaren arretarako ematen diren dirulaguntza gehienak –% 57 inguru– familiakoak zaintzeko laguntza ekonomikoaren bidezkoak dira. Horrek dakar Mendekotasunari buruzko Legean ezarritakoaren aurka egitea; izan ere, legean jasotzen denez, beharrezkoa da mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzua langile kontratatuek ematea, eta laguntza ekonomikoa salbuespena izan da betiere.

Gizarte Gaietako Departamentuko arduradunek diotenez, hori da onuradunek gehien komeni zaien prestazioa aukeratu ahal izateko askatasunaren ondorioa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartearen ustez, horren arrazoia, askatasuna baino gehiago, legea garatzeko konpromiso falta da; izan ere, legearen xedea da mendekotasuna duten pertsonak artatzen dituzten langileen –emakumezkoak izan ohi dira– esplotazioa kroniko ez egitea eta enplegu banku bat garatzea, eta, hala Mendekotasunari buruzko Legea modu egokian garatzea.

Bestalde, mendekotasunari aplikatutako teknologia bultzagarri ekonomikoa ere izan daiteke. Osasunaren arloko teknologia merkatuko txoko bat dira, beharbada zailtasunak dituzten beste batzuk, hala nola eraikuntza, ordezkia ditzakeena. Mendekotasunari aplikatutako osasun arloko teknologia berriek ahalegina eta konpromisoa eskatzen dute, ikerketa publiko nahiz pribatuari dagokionez.

Europar Batasunak aurreratu duenez, 65 urte-tik gorakoei aplikatutako informazioaren eta komunikazioaren teknologien eraginez 3.000 bilioi euro mugituko dira.

Mendekotasuna duten pertsonen etxez-etxeko zaintzari aplikatutako teknologiak dira etorkizun hurbileko erronka.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan mendekotasuna dutezentzako laguntzaren eredu adostu bat zehatz dezan, jarduketa plan bat ezarrita. Eredu hori Estatuko legearen zioan eta edukietan oinarrituko da.

- Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan gaur egun mendekotasunaren arloan familiakoen zainketarako ematen diren prestazio ekono-

mikoen joera, salbuespenezkoak izan behar baitute, Estatuko legeak ezarritakoaren arabera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gara dezan Mendekotasunari buruzko Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiekin loturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan, eta ikerketari arreta berezia eskaini diezaion.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugalkortasun Unitateko obrak esleitze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugalkortasun Unitateko obrak esleitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak bisita egin zuen Bideko Ama Birjina Ospitalera bertatik bertara ikusteko Ugalkortasun Unitatearen egoera, eta han egiaztatu ahal izan zuen, Bideko Ama Birjina Ospitaleko arduradunek azaldu bezala, unitate horri buruzko plan funtzionala prest dagoela eta unitatearen proiektua plan horren arabera eginen dela.

Jada zehaztuta dago Ugalkortasun Unitateak beteko duen tokia, ikusi ahal izan genuenez. Esan zigtenez, proiektua jada egina dago eta 2010eko aurrekontua onetsi arte itxaron beharko da lanak esleitzeko.

Mozio hau aurkeztu dugun parlamentu-taldeen ustez, aipatu unitatea abian jarri behar da lehenbailehen; izan ere, 2008ko aurrekontuan bazen ugalkortasun Unitaterako kontusail bat, eta bi urteko atzerapena darama. Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugalkortasun Unitateko obrak esleitze aldera.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Foru parlamentariak: Asun Fernández de Garaialde eta Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuizatzen duela.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuizatzen duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iragan ekainaren 12an, Gobernu Zentralak errege dekretu bat onetsi zuen, zeinaren bidez igo baitziren hidrokarburoen gaineko zeharkako zergak (2,9 zentimo litroko), bai eta tabakoarenak ere (2 euro mila zigarroko).

Gobernuak espero du 1.097 milioi eurotan handitzea hidrokarburoen kontsumoaren gaineko diru-bilketa, eta 1.220 milioi eurotan tabakoaren kontsumoaren gainekoa.

Ekonomiako ministro Elena Salgadok igoera defendatu du esanez haren helburua dela ekonomia jasangarriagoa egitea.

Baina ministroak esandakotik harago, egia da Gobernu zentralak zeharkako zergen bidezko zerga-bilketa handitu nahi duela, krisi ekonomikoa dirubilketan izaten ari den ondorio txarrak direla eta.

2009ko lehenengo lau hilabeteetan, Estatuko Administrazioaren zerga-bilketa % 16 jaitsi da.

Planteatzen den oinarrizko arazoa hau da: azken hamarkadetan izandako erreforma fiskal guztiek jarraitu duten bidea izan da zerga sistemaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena murriztea.

Eta gaur egun, krisiadi ekonomiko larria dugu-nean, sistemak ez du behar adina baliabide eta ahalmen zerga-bilketari eusteko.

Adibidez, gogoratu behar da duela urtebete Gobernu Zentralak eta Nafarroako Gobernuak ondarearen gaineko zerga kendu zutela, eta horrek ogasunarentzat izan zuen kostua orain zehazkako zergak igota lortu nahi den bilketa baino handiagoa izan zen.

Zerga horien igoerak Nafarroako herritarrei dakarkien kostua 40 milioitik gorakoa izanen da 2009an. Horrek esan nahi du Nafarroako ondare handien gaineko zerga kendu dela eta horrek zerga-bilketan ekarri duen galera berreskuratu dela, neurri handi batean, herritar guztiek hidrokarburoen eta tabakoaren kontsumoaren bidez ordaindutakoarekin.

Krisi ekonomikoko egoerak agerian utzi du gure zerga sistemak erreforma sakon baten beharra duela, gehikortasuna eta bilketarako gaitasun galdua berreskuratze aldera.

Gobernu Zentralak onetsi berri duen zeharkako zergen igoera, Nafarroako Gobernuak ere aplikatuko duena, ez dator bat ildo horrekin. Aldiz, eredu fiskal bidegabe eta atzerakoi batean sakontzen jarraitzen du.

Hori dela eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuizatzen duela.

Iruñean, 2009ko ekainaren 23an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan ikastetxe integratuetako prestakuntza plana eskaintzen, erantzun egokia eman baitie langileen prestakuntza beharrei, bai eta enpresen eskakizunei ere.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan kasuan kasuko kontusaila ikastetxe integratuetako prestakuntza planari jarraipena emateko; izan ere, beharrezkoa da ikastetxe horiek dituzten giza baliabideei eta baliabide materialei etekina ateratzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen aurkez dezan Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta Helduen Hezkuntzako etengabeko prestakuntzari dagozkion ikastaroen eskaintza, ekimen horri jarraipena emateko eta irailetik abendura bitarteko hiruhilekoa behar bezala planifikatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan".

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak 2009ko ekainaren 24an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren protokolo fakultatiboak ezarritako babes-neurriekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren protokolo fakultatiboak ezarritako babes-neurriekin. Neurri horiek ahalbidetzen dute banakako komunikazioak bidaltzea eskubide horiek urratzen diren kasuetan.

2. Eskatzen dio Espainiako Gobernuari dituen alde biko harremanetan susta dezan aipatu protokoloaren sinadura eta berrespena, eta Espainia

izan dadin tresna horretan parte hartuko duen lehenengo estatuetako bat.

3.- Adierazten du uste osoa duela pobrezia gainditu egiten duela baliabide ekonomikoak ezin eskuratzea, eta ondoko egoerak ekartzen dituela: gabezia, bazterketa, segurtasun falta eta parte-hartze falta. Hori dela eta, berresten du bere konpromisoa giza eskubideen defentsa eta baliatzea kontuan hartzeko erakunde honek pobrezia arka egiteko bultzatzen dituen ekimenetan."

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Amazonasko indigenen erkidegoaren protesta amaiazte aldera Peruko Gobernuak Baguako oihaneko herritarrei eragindako errepresio eta erasoer buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta gaitzespena adierazten ditu Peruko Gobernuak Amazonasen esku hartzen saiatu izanaren ondorioz indigenen erkidegoak eginiko protesta amaiazte aldera Baguako oihaneko herritarrei eragindako errepresio eta erasoak direla eta.

2. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren

bidez igor dezan adierazpen hau Peruko erakunde eskudunetara. Halaber, erakunde horiei dei egiten diegu elkarrizketaren bidez gatazkaren konponbidea bila dezaten. Konponbide horren bidez, indigenen eskubideak bermatu beharko dira, edozein hitzarmeneko zati baitira. Halaber, beharrezkoa da nazioarteko komunitateak parte hartzea gertakari horiek argitu eta giza eskubideen urraketarik izan den ikertze aldera.”

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuotak itzultzeko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiatzaren 4ko 66/2009 Foru Aginduaren 2. artikulua ezartzen du:

“Gasolioa erosteagatik nekazariak eta abeltzainek ordaindu edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezirako eskabidea aurkezteko modua eta epea.

2009ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 2/2008 Legearen berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren bidez eta xedapen horretan berean aipatzen den bezala, gasolioa erosteagatik ordaindu edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketarako eskubidea aitortua duten nekazariak eta abeltzainek, eskubideaz baliatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko dute, Internet bidez, 2009ko irailaren 1a baino lehen, foru agindu honetan aurreikusten diren baldintzekin eta prozedurarekin bat.”

Kontuan hartuta nekazari eta abeltzain guztiek ez dutela aukerarik gasolioa erosteagatik ordaindu edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezirako eskabidea Internet bidez telematikoki aurkezteko, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Beste aukerarik ziurtatu al da gasolioa erosteagatik nekazariak eta abeltzainek ordaindu edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezirako eskabidea aurkezteko? Zein?

- Bermatuta al dago gasolioa erosteagatik hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzuliko zaizkiela eskabidea Internet bidez telematikoki aurkeztu ezin izan duten nekazari eta abeltzainei?

Iruñean, 2009ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera aurkeztu du, jakiteko ea Nafarroan zenbat funtsezko erakargarri turisti-

ko dagoen eta ea horietako zenbat eskatu dituzten partikularrek edota toki entitateek azken urte honetan. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan 128 erakargarri turistiko daude.

Iaz beste bi gehiago jaso ziren, interesdunek hala eskatuta: bata partzuergo batek eta kudeatzaileek eskatuta (Mendukiloko kobazuloak) eta bestea gerentziak eskatuta (Senda Viva parkea)

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 29an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Gendulainen etxebizitzak eraikitzekeo sustatzaileentzako balizko abalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gendulainen etxebizitzak eraikitzekeo sustatzaileentzako balizko abalari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du, Desarrollo Sostenible de Navarra sozietatean bildutako etxebizitzak sustatzaileei eta etxegileei Nafarroako Kutxak emandako maileguaren balizko abalari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna:

1) Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 7/2007 Foru Legeko 74. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat, Nafarroako Gobernuaren abalari Gobernuaren erabaki bidez emanen dira, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta. Abalari Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak formalizatuko ditu, eta horren berri emanen zaio Nafarroako Parlamentuari.

2) Hori guztia gorabehera, departamentu honetan ez da jasota ageri Nafarroako Gobernuak Desarrollo Sostenible de Navarra enpresari abalari eman dionik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 27an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

1) Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariak ezartzen duenez, Irunberriko ur hornidurari etorkizunean emanen zaion konponbidea Agoizko nahiz Longidako eta Urraulbeitiko udalei emanen zaienaren eskutik etorriko da, Nafarroako Ubideak Itoizko urtegiko hartune-tunelaren irteeran duen Balbulen Ganberatik hain zuzen ere.

2) Ez.

3) Ez. Gogorarazi beharra dago udalarenak direla hornidura arloko eskumenak, eta ez beste inorenak; kasu honetan, eskumenon erabilera bat dator 10. eremuko obrak egiteari dagokionez udalen borondatezko elkartearen erabakitzen ari denarekin.

4) Toki Administrazioako Departamentuak 5.281.710,14 euro jarri ditu, departamentuak kude-

atzen dituen azpiegiturei buruzko inbertsio planen arabera, baina ezin da zehaztu kopuru horretatik zenbat dagokion Irunberriko Udalari; izan ere, konponbide bateratua denez gero, gaur arte egingdako jarduketek zenbait herri ukitzen dituzte.

5) Toki Administrazioako Departamentuak diruz lagundu du Usuneko, Domeñuko eta Arbontzeko herrietarako aurreikusitako hornidura-konponbidearen zati bat, eta soilik falta da horren gaineko jarduketa osagarriren bat.

6) Bigarren erantzunean esandakoa errepikatu besterik ez dugu.

7) Erantzuna emana dago bigarren eta seigarren erantzunetan. Eta, betiere, argi geratu behar da Toki Administrazioako Departamentuak ez duela urratu, ez berak beste inongo udalekin batera, Uren Legea. Gertakariak ikusi besterik ez dago.

8) Toki Administrazioako Departamentuak, organo dinamiko eta bizia den aldetik, bere jarduketatik heldu den obra oro kitatzen du etengabe. Agoizko, Longidako, Urraulbeitiko eta Irunberriko udalen borondatezko elkartearen kasuan ere hala egin izan du eta hala egingen du, diruz lagundutako obretako fase bakoitza bukatu bitartean. Horiek bukatutakoan jakinen da zein den azken eta behin betiko likidazioa.

9) Egin beharrekoa aurreko erantzunean esandakora mugatuko da, eta, betiere, indarreko legediari jarraikiz egingen da.

10) Halako galdera zehaztugabe batetik ezin da ondorioztatu zein obra den.

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro

Armendáriz jaunak galdera egin du –PES-376– Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan eginiko jarduketei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Kutxa finantza-entitate bat da, eta haren zuzendaritza organoek –Nafarroako Gobernuarekiko independenteak– arautzen dituzte Kutxaren jarduketak.

Hortaz, legedia indardunarekin bat, galderak oinarri duen premisa ez datorrenez bat errealitatearekin, galderak ez du zentzurik.

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, elikadura-jokabidearen nahasteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du elikadura-jokabidearen nahasteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Elikadura-jokabidearen nahasteei buruz (PES-377/08). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1).- Honakoak dira Nafarroan bildutako datu epidemiologikoak:

– Prebalentzia:

Pérez Gaspar M. eta laguntzaileek 1997tik 2000ra bitarteko azterlana egin zuten, biztanleria orokorrari buruzkoa, 12 eta 21 urte bitarteko 2862 neska ikasle aztertuta. Haiengan, elikadura-jokabidearen honako nahasteak aurkitu ziren:

Nerbio-anorexia: % 0,31

Nerbio-bulimia: % 0,8

Elikadura-jokabidearen zehaztu gabeko nahasteak: % 3,1

– Eragina:

1977tik 1998ra bitartean, Lahortiga-Ramos F.k eta laguntzaileek 13 eta 22 urte bitarteko emakume eskolatuak aztertu zituzten, eta 2004an honako datuak argitaratu zituzten:

Nerbio-anorexia: 100.000tik 200

Nerbio-bulimia: 100.000tik 200.

Elikadura-jokabidearen zehaztu gabeko nahasteak: 100.000tik 2800.

– Elikadura-jokabidearen nahasteengatik eguneko ospitaletan sartutakoak:

2002-2005 urteetan, guztira 44 ospitaleratze izan ziren elikadura-jokabidearen nahasteengatik, nagusiki nerbio-anorexiarengatik.

Elikadura-jokabidearen nahasteagatik ospitaleratzeen tasa 100.000tik 5ekoa da. Eguneko ospitaletan aurkitzen diren elikadura-jokabidearen nahasteen % 68 nerbio-anorexia duten gaixoak dira.

2000tik 2005era, elikadura-jokabidearen nahasteak dituzten emakumeen ospitaleratzeetatik 63 nerbio-anorexiarengatik izan ziren; 34 pertsona izan ziren ospitaleratutakoak. Honako proportzioak atzeman daitezke:

PREBALENTZIA	1997	2001	2005	2006	2007
Nerbio-anorexia	187	187	133	121	116
Nerbio-bulimia	129	168	115	102	111
Bestelakoak (*)	87	132	140	126	121
Guztira	403	487	388	349	348

(*)Bestelakoak: Elikadura-jokabidearen nahaste atipikoak edo zehaztu gabeak.

2).- 2008an, adimen osasunaren sarean elikadura-jokabidearen nahasteetan berriazko laguntza emateko bi talde jarri dira, bata helduentzat eta bestea haurrentzat.

Talde horiek osatzeko, kontuan hartu da diziplina anitzeko tratamenduak eskaintzen duela gaixo horiei laguntza emateko esparru egokiena.

Helduentzat, berriz, Elikadura-jokabidearen Nahasteen Unitatea sortu da, honako profesional hauekin:

- Psikiatra bat.
- Psikologo kliniko bat.
- Gizarte langile bat.
- Erizain bat.
- Erizaintzako laguntzaile bat.
- Administrari laguntzaile bat.
- Lanerako terapeuta bat, lanaldi erdian.

Adin pediatrikoan dauden gaixoei laguntzeko diziplina anitzeko taldea honakoek osatua dago:

- Psikiatra bat.
- Psikologo kliniko bat.
- Gizarte langile bat.
- Erizain bat.

21 gaixo ospitaleratze batekin

13 gaixo 2 ospitaleratze baino gehiagorekin

Ospitaleratze partzialaren batez besteko egonaldia 63 lanegunekoa da (hiru hilabete, gutxi gorabehera).

2005ean, honakoak dira Nafarroako Foru Komunitateko adimen osasunaren sarean jasotako prebalentzia datuak:

Adimen osasuneko zentroak	2006	2007
	349	348

Honakoa da 1997tik gaur arte izan den prebalentzia orokorra:

– Erizaintzako laguntzaile bat.

– Administrari laguntzaile bat.

Talde horiek sortzerakoan helburu bat izan dugu: nahasterako tratamendu integrala eta trinkoa ematea eta tresna bat sortzea gaixo horiei laguntza ematen zaien arlo desberdinetan batusun-gune gisa balia dadin.

Talde horien osakerak eta funtzionamenduak hokakoak bideratzen ditu:

– Nahastearen hasieran eta mantentzean eragina duten faktore soziofamiliarak identifikatzea eta haietan esku hartzea.

– Banakako taldekako esku-hartzeak egiten dituzte.

– Ez dute gaixoa bere ingurune naturaletik bereizten, eta hori bereziki garrantzitsua da haurren, nerabeen eta gazteen kasuan.

– Guztizko ospitaleratzeen premia gutxitzea eta laburtzea.

– Prozesu osoa jarraitzea, laguntza maila desberdinen arteko eta ospitale- eta ambulatorio-arabideen arteko trantsiziorako eta loturarako tresna baten gisara.

– Gaixoak eta haien familiak zuzenean inplikatzeari.

3).- Nafarroako elikadura-jokabidearen nahastei buruzko lantalde teknikoaren gomendioei jarraituz, prebentzio programak Osasun Publikoaren Institutuak diseinatzen, koordinatzen eta gainbegiratzen ditu.

Institutu horretako Osasuna Sustatzeko Atala da Osasunerako Hezkuntzan lan egiteko ardura duena, eta horretarako baterako ekintzak sustatzen ditu esparru sozio-sanitariotik eta hezkuntza-aren esparrutik.

Kontuan hartu behar da elikadura-jokabidearen nahastei buruzko prebentzio lanak elikadurarekin loturiko beste patologia batzuetarako –esate baterako, obesitaterako–prebentzio programen aurka-koak izan daitezkeela. Hori dela eta, elikadurarako eta jarduerarako ohitura osasungarriak sustatu behar dira, bizimodu osasungarriak bultzatzeko testuinguru orokorraren barruan eta osasunaren ikuspuntutik, ez gaixotasunaren ikuspuntutik.

Hezkuntza sistemari dagokionez, Osasunaren aldeko Eskolen Sarearen barruan, giro osasungarriak sortzearen aldeko apustua egiten da. Sare horrek osasuna zeharkako gai gisa sartzen duen curriculum erantzun bat eskaintzen du, ikasleei behar dituzten baliabideak eta gaitasunak emateko bizimodu eta jokabide osasungarriak hauta ditzaten.

Elikadura-jokabidearen nahasteen prebentzioarekin zerikusia duten eta haurren eta nerabeen hezkuntza-tarteetan zentratuta dauden lan-ildoei

dagokienez, honakoak dira Osasuna Sustatzeko Ataletik aurrera eramaten diren jarduerak:

- Irakasleen prestakuntza
- Profesionalentzako laguntzako materialak prestatzea. Esate baterako, “Osasunerako eta garapen pertsonalerako gida eta gela osasungarriak. Nerabe trebeak” izenburukoak.
- Aholkularitza.
- Laguntza ekonomikoa.

Gazterian zentratutako lan ildoei dagokienez, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak osasunaren aldeko unibertsitatei buruzko lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmena 2006-2010 Unibertsitate Osasungarriari buruzko Plana delakoan gauzatu da.

Osasuna Sustatzeko Ataletik eta NUPetik bertatik azterlan bat egin zen unibertsitate-erkidegoaren osasunari eta bizi kalitateari buruz. Azterlan horren galdetegian, elikadura-jokabidearen nahastei buruzko zenbait gai sartzen ziren.

Emaitzen arabera, ikasturte bakoitzean gaiari buruzko urteko helburuak programatu eta garatzen dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duena.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen "Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak", zeinak lan-taldeak berak onetsi baitzituen 2009ko ekainaren 30ean eginiko bilkuran. Hona testua:

Lehena. Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lan-taldearen helburua da aipatu ezarpenari buruzko txosten bat egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, boto partikularrekin batera, baldin eta halakorik bada, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena. Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Carmen María González García andrea (UPN)
Ordezkoa: Sergio Sayas López jauna

Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)
Ordezkoa: María Luisa Mangado Cortes andrea

María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)
Ordezkoa: Román Felones Morrás jauna

José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna.

Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)
Ordezkoa: Ana Figueras Castellano andrea.

Hirugarrena. Lan-taldeak lehendakaria hautatuko du, eta, kasua bada, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahalko du hura. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, edo, kasua bada, haren ordez aritzen dena.

Laugarrena. Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, bere parlamentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarreak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu lan-taldeko kide bakoitzak.

Bosgarrena. Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezzen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezzen ere. Orobat eskatu ahalko du beste aditu batzuk ere etor daitezzen.

Seigarrena. Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2010eko martxoaren 31rako bukatu beharko du.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lan-taldea, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzea.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen "Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzekeo lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak", zeinak lan-taldeak berak onetsi baitzuten 2009ko ekainaren 30ean eginiko bilkuran. Hona testua:

Lehenena. Lan-taldearen helburua da Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzea. Lana bukatuko da txosten bat eginda, non onetsitako ondorioak eta proposamenak bilduko baitira.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, boto partikularrekin batera, baldin eta halakorik bada, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrenena. Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Carmen María González García andrea (UPN)
Ordezkoa: Josefina Bozal Bozal andrea

María Luisa Mangado Cortes andrea (NaBai)
Ordezkoa: Paula Kasares Corrales andrea

María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)
Ordezkoa: Román Felones Morrás jauna

José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna.

Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB).
Ordezkoa: Ion Erro Armendáriz jauna.

Hirugarrenena. Lan-taldeak lehendakaria hautatu du, eta, kasua bada, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahalko du hura. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, edo, kasua bada, haren ordezkari izanen da.

Laugarrenena. Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, bere parlamentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu lan-taldeko kide bakoitzak.

Bosgarrenena. Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezkeen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen ere. Orobat eskatu ahalko du beste aditu batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrenena. Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrenena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2010eko otsailaren 28rako bukatu beharko du.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikuluari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2008ko ekainaren 23an emaniko epaiaren bidez, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak deuseztat jo zuen Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua. Epai horrekin hein batean onetsi zen Comisiones Obreras sindikatuko Zerbitzuen eta Administrazio Publikoen Federazioak aurkeztutako 353/2007 errekurtoa.

Epai horren aurka kasazio errekurtoa jarri da Auzitegi Gorenean. Hala ere, errekurto-egileak epaia behin-behinekoz betearaztea eskatu zuen, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Salak, 2009ko ekainaren 3ko autoaren bidez, eskaria onetsi zuen.

Horiek horrela, hona ERABAKIA:

1. Harik eta ebatzi arte Nafarroako Auzitegi Nagusiaren otsailaren 13ko 77/2007 epaiari Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio errekurtoa, indarrrik gabe geldituko da, behin-behinekoz, Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua, 2007ko otsailaren 26ko Mahaiaren Erabakiaz onetsi zena (2007ko martxoaren 7ko 21. NPAO).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeari eta Comisiones Obreras sindikatuko Zerbitzuen eta Administrazio Publikoen Federazioari, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

